

EZKON BARRITAN

Mendatako Enkarna Elorrietak kontatuta

Andre-gizonak ezkonduita diadekanpoan¹ joan ziran, eta trenean doazela gizonak urun zorroaren kontran praka guztiak zuri-zuri egin dauz, eta... bueno joan da komunera prakak kendu eta bentanatik sakuditan hasi da, eta prakak ez jakoz arbola batean eskegita geratu ba! eta klaro gizon gizajoa komunetik urten barik egon da, eta halako batean joan jako andrea:

– Zer pasetan jatzu gizona?

– Zer pasatuko jat ba! begitu zelan nagoen, prakak bentanan sakuditan nauela, arbolan baten gelditu jataz!

– Itxaron eizu gizona oraintxe joango naz eta baten bateri neuk eskatuko deusat gabardinea edo eta.

Joan da andrea eta esan deutso bateri zer pasatu jakon, eta:

– Edarto, edarto, ondo dau –esan deutso– eroan eiotzesu hauxe neuk aldean daukadan gabardinea.

Jantzi dau gabardinea eta bajatzeko paradea heldu jakenean trenetik bajatzen doala ateko kisketean gelditu jako gabardinea dindilizka, eta bera gantzuntzilo hutsean geratu da. Ordutik aurrera ez ei eban urten gizonorrek praka pare bi poltsan sartu barik.

1 Diadekanpo: Eztei-bidaia

Mendata gure geurea danentzat

Idoia Mallea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo 2002